

## GIL 96 Gorrondatxe eta Tunelbocako hondartza zementatua



Gorrondatxeko hondartzaren itxura. Hondartza zementatuaren maila ondo ikusten da.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 22' 42,40" N

Long.: 3° 1' 36,59" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 497.826,55 m

Y: 4.802.842,24 m



### Nola iritsi

Getxo udalerritik, autoz lehenengo eta oinez gero, La Galeako errepide-pasealekua hartu, eta itsas aldera jo Punta Galeako harkaitzaren perimetroa inguratuz, ekialderantz. Bestela, Getxoko herrigunetik Zientoetxe kalea hartu (BI-3722 errepidea) Gorrondatxeko hondartza aldera. Kalearen amaieran, aparkaleku bat dago; hortik La Galeako aurreko pasealekuarekin bat egin daiteke. Hondartzetara jaisteko, eskailerak daude (Tunelboca), edo oinezkoen bidezidor bat (Gorrondatxe).



Hondartza zementatu –*beachrock*– horizontala, geruzen gainean.

## Deskribapena

Abraren kanpoaldean, ekialderantz, Punta Galeako labarren oinean, Getxoko udalerrian, itsasoko sedimentuen zenbait metaketa daude, kolore ilunekoak, *beach-rock* tipokoak. Harri sedimentario batzuk dira, kaltzio karbonatoarekin maila desberdinetan zementatuak. Marearteko zonan eratzen dira, sedimentu-mota desberdinak nahasiz, harea-tamainakoak eta legar-tamainakoak.

Hondartza honetan, gaur baino lehenagoko harea horiek zertxobait zementatuta daude aragonitoarekin, sakonera txikiko itsasguneetan eta itsas eremu uberatsuetan oso ohikoa den prozesu diagenetiko baten ondorioz. Harri erdisendotu horiek beira-zati eta eraikuntzako adreilu-zati ugari dituztenez, esan daiteke duela gutxi eratu direla.

Hasierako ustea zen sumendietatik sortua zela harea, baina orain badakigu metaketa honen jatorria burdingintzatik etorritako zepa-isurketa batzuk direla, karbonatotan oso aberatsak. Inguruetak burdin industriatik eratorritako isurketak dira, oso ohikoak Abraren irteeran XX. mendearen hasieran. Gero, itsas korronteek eta olatuek industria-isurketak sakabanatu, eta fenomeno geologiko hau eragin zuten, zeina kostaldeko zerrenda mugatu honetan bakarrik ageri baita.

XX. mendearen amaierara arte, antzeko metaketak aurkitu zitezkeen Getxoko Arrigunaga hondartzan ere, Abra barruan. Baina material haiek artifizialki estali zituzten Bakio pareko itsas plataformatik ateratako harearekin, helburu turistikoetarako.



Gorrondatxeko hondartza zementatuko mailaren xehetasuna. Hingatzen ari da gaur egun. Metakinaren harkoskoetan adreilu-zatiak ikus daitezke (gorrixkak).

### Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 90, GIL 117, GIL 132, GIL 49, GIL 44, GIL 127, GIL 118, GIL 35, GIL 93, GIL 26, GIL 91, GIL 125.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 89, GIL 90, GIL 91, GIL 92, GIL 93, GIL 94, GIL 95.

### GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				●
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interés económico (extractivo)</b>			Pasado	Potencial	En activo
<b>Interes kulturala:</b> Bilboren garapen industrialari oso lotua.					
<b>Oharrak:</b>					



Gorrondatxeko hondartza zementatuaren xehetasuna.

## Bibliografia espezifikoa

- Cearreta, A. (1992): *Cambios medioambientales en la Ría de Bilbao durante el Holoceno*. Eusko Ikaskuntzaren Historiako Atalaren Koadernoak, 20: 435-454.
- Bizkaiko Foru Aldundia (1990): *Bizkaiko interes geologikoko guneak*. Kultura Saila, 270 or.
- García-Garmilla, F. (1990): "Diagénesis de las arenitas: ejemplos del Cretácico, Terciario y Cuaternario de la zona de Bilbao". *Kobie*, 19: 85-103.
- Knox, G.J. (1973): "An aragonite-cemented volcanic beach-rock near Bilbao, Spain". *Geologie en Mijnbown*, 53: 9-12.